

Maleta egiteaz

Daukadan guztia neurekin daramat.

Edo, neurea den guztia, neurekin daramat.

Neukan guztia ekarri dut. Neurea ez zen, ordea. Erabilera bitxia egokitutako objektuak ziren, edo beste norbaitenak. Zerri-laruz egindako maleta, gramofono-kutxa bat zen berez. Laneko bata aitarena zen. Belusezko lepoa zuen kalerako berokia, aitonarena. Galtza bonbatxoak, osaba Edwin-enak. Belaunetarainoko larruzko galtzerdi babesleak, bizilagunarenak, Carp jaunarenak. Artilezko eskularru berdeak, izeba Finirenak. Ardoaren kolore gorriko zetazko txala eta nezeserra baino ez ziren neureak, azken Eguberrietan oparitan jasoak.

1945eko urtarrilean gerra amaitu gabe zegoen. Negu gorrian errusiarrengana nork-dakinoraino joan beharko nuelako beldur zirenez, bakoitzak zerbait eman nahi zidan; ezerk laguntzen ez duenean, akaso baliagarri izan daitekeen zerbait.

Munduan ez baitzegoen lagunduko zuen ezer. Halabeharrez errusiarren zerrendan bainengoen, eta bakoitzak bere iritzia gordez, zerbait eman zidan. Eta nik hartu eta, nire hamazazpi urterekin, bidaia hura unerik egokienean zetorkidala pentsatu nuen. Hobe errusiarren zerrenda izan ez balitz, baina tira, txar-txarra ez bazen, ni konforme.

Herria titare bat zen niretzat, eta alde egin nahi nuen handik, harri guztiek begiak zituzten lekutik. Beldurra beharrean, nolabaiteko urduritasuna zen nik barruan neramana, ezkutuan. Eta kontzientzia txarra, nire senideak ernegatzen zituen zerrenda bera onargarria baitzen niretzat. Zerbait gertatu eta atzerrira bidaliko ninduten beldur ziren haiek. Inork ezagutuko ez ninduen lekuren batera joan nahi nuen nik.

Hain zuzen ere, gertatu zitzaidan zerbait. Debekatutako zerbait. Bitxia izan zen, zikina, lotsagabea eta ederra. *Erlentparken* gertatu zen, Belar Motzeko muinoaz bestalde. Etxerako bidean parkearen erditik pasatu nintzen, jaiegunetan orkestrek jotzen duten kioskotik. Han eserita gelditu nintzen une batez. Argiak dotoreziaz landutako egurra

zultatzen zuen eta biribil, karratu eta trapezio hutsen ikara ikusi nuen, atzapardun aihen zuriek harrapatuak. Sentitzen nuen nora ezaren irudia zen hura, eta amaren aurpegiko izu-ikararen irudia. Kiosko hartan zin egin nuen: “ez naiz sekula parke honetara itzuliko”.

Zenbat eta gehiago saiatu handik urrun mantentzen, orduan eta agudoago itzultzen nintzen hara... bi egunen buruan. *Rendezvous*etara, horrela deitzen genien parkeko hitzorduei.

Bigarren *rendezvous*an aurrenekoan egondako gizon berarekin egon nintzen. ENARA zuen izena. Bigarrena berria zen, IZEIA zuen izena. Hirugarrenak BELARRIA zuen izena. Haren atzetik LUMA etorri zen. Gero, URRETXORIA eta TXANOA. Aurrerago, UNTXIA, KATUA, KAIOA. Gero, PERLA. Guk baino ez genekien nori zegokion izen bakoitza. Animalien igarobidea zen parkeko hura, eta nik lehenengo batek eta gero besteak eman ziezadan uzten nuen. Uda zen, gainera; urkiek azal zuria ageri zuten; jasmin- eta intsusa-sasitzan hostotza berde eta sarria hazten zen. Maitasunak bere urte-sasoia izaten ditu. Udazkenarekin amaitu egin zen parkekoa. Egurra biluztu egin zen. *Rendezvous*ak *Neptunbad* bainu-etxera eraman genituen. Sarrerako burdinazko ate handiaren ondoan bainu-etxearen ikur obaltoa zegoen, zisne bat ageri zuela. Ni adinako bi zen batekin elkartzen nintzen astero. Errumaniarra zen. Ezkondata zegoen. Ez dut esango nola zuen izena, ezta nik nola nuen izena ere. Ez ginen elkarrekin iristen, inork ez baitzuen ulertu behar *rendezvous*a genuenik: ez atariko leihatila beruneztatuko emakumeak, ez ispilu lanak egiten zituen harrizko zoruak, ez zutabe biribilek, ez nenufaren irudiekin apaindutako lauzek, ezta egur landuzko eskailerek ere. Igerilekura gainerako guztiekin batera sartzen ginen igeri egitera. Saunan, orduan bai, elkartzen ginen.

Garai hartan, esparrura joan baino pixka bat lehenagotik hasi eta 1968an esparrutik itzuli nintzen arte, alegia, herria galdu nuen garai hartan, kartzela-zigorra ezartzen zitzaien *rendezvous*etan elkartzen zirenei. Niri ere, harrapatu banindute, bost urte gutxienez. Batzuk harrapatu zituzten. Parketik edo bainuetatik atera, galdeketa izugarriak jasan eta zuzenean kartzelara. Handik, kanaleko zigor-esparrura. Gaur egun badakit kanaletik ez zela inor itzultzen. Eta hala eta guztiz ere itzultzen zena, hilotz

ibiltari bat zen. Higatua eta akabatua, munduko inolako maitasunetarako ezgai. Eta esparruan... esparruan harrapatu izan banindute, hilik nengoke.

Bost urte esparruan egon eta gero, alderrai nabil, egunak joan egunak etorri, kaleetako jendetzaren artean, eta nire atxiloketari aurre egiteko ondoen dagozkion esaldiak errepikatzen ditut buruan. EKINTZAN BETE BETEAN ATZEMANA. Erruduntasun-epai horren aurrean milaka aitzakia eta alibi neuzkan prestatuak. Neure egin eta neurekin daramat isiltasuna. Hain sakon eta hain luze lotu natzaio isiltasunari, orain ezin bainaiz inoiz hitzetan askatu. Beste bat bainaiz hitz egiten dudanean.

*Rendezvous*ez gozatu nuen azken udan, *Erlenparketik* etxerako itzulera luzatzearen, hiriaren kanpoaldean dagoen Hirutasun Santuaren Elizan sartu nintzen kasualitatez. Kasualitate hura patu bihurtu zitzaidan. Hurrena zetorkidan garaia ikusi nuen. Alboaldarearen ondoko zutabeetako batean santuaren irudia zegoen, estalki grisa soinean, eta estalkiaren lepoko gisa, bildotsa garondoan. Garondoan zeraman bildots hura da isiltasuna. Badira esaten ez diren zenbait gauza. Baina nik badakit zertaz ari naizen “isiltasuna ahoan” diodanean.

Hogeita bost urtez bizi izan naiz beldur, esparruan egondako garaia baino lehen, bertan egondako garaian nahiz gerora. Estatuaren beldur eta familiaren beldur. Beldur, hondamendi bikoitza jasateko: estatuak gaizkile gisa ni giltzapetzea eta familiak ni lotsagarritzat hartzea. Kaleetako jendetzaren erdian, ispilu bihurtzen diren erakusleihoetan, tranbia eta etxeetako leihoetan, iturri eta putzuetan begiratu diot neure buruari, gardena ez naizenik ezin sinetsirik.

Aita marrazketa teknikoko irakaslea nuen. Eta ni, *Neptunbad* bainuetxea buruan, ostikada batek jota bezala ikaratzen nintzen, hark AKUARELA hitza erabiltzen zuenean. Hitzak ondotxo zekien noraino iritsia nintzen ni. Amak honela zioen mahaian geundenean: “ez sartu sardexka patatan, zatitu egiten duk-eta, hartzak koilara, sardexka haragia jateko erabiltzen duk-eta”.

Taupa-taupa hasten zitzaizkidan lokiak. Zer dela eta aipatu du haragia, patataz eta sardexkaz ari bagara. Zer haragi eta zer haragi ondoko. Niri *rendezvous*ek jarri zidaten haragia hankaz gora.

Neure buruaren lapur nintzen, ezustean etortzen zitzaizkidan hitzak, eta harrapatu egiten ninduten.

Amak, eta bereziki aitak, herriko aleman guztiek bezala, txirikorda ilehorien eta belaunetarainoko galtzerdien edertasunean sinesten zuten, Hitlerren biboteak osatzen zuen lauki beltzean eta Saxoniako *Siebenbürgen* eskualdeko herritarron arraza arioan. Nire sekretua, gorputzari zegokionean bakarrik begiratuta, guztiz higuingarria zen. Errumaniarrarena gehituta, arrazari egindako desohorea gehitzen zitzaion.

Familiatik ihes egin nahi nuen eta esparrura joatea egokitu zitzaidan. Amagatik baino ez nuen pena sentitu, hark ez baitzekien zein gutxi ezagutzen ninduen. Ez nagoen egunean askotan pentsatuko baitu nigan, nik harengan bezala.